

Giza eta Gizarte Zientziak eta pentsamendu globala

Jokin Apalategi Begiristain

Ohoreko irakasle katedraduna UPV/EHUn. UZTARO aldizkariaren zuzendaria

Humanitateari buruzko gure gaurko ezagutzek, ahozkoek bezala irudizkoek eta idatzizkoek, zera erakusten digute, hasieratik beretik pentsamendu globalaren bila jardun izan dela gizakia. Hala ere, aroak eta aroak bereizi behar ditugu, zeren bereziki «modernitateaz gero», pentsamendu globalari azientifikoa izatearen aitzakia eta mamua erantsiz, pentsamendu errelatibo eta mugatuaren proiektua kontrajarri izan baitzaio. Baina, behin ere ez dira, orduan ere, pentsamendu globaletarako saioak gelditu. Gaurko egunetan, pentsamendu globalaren azken aldiko porroten ondotik, eta pentsamendu diziplinarioak nagusitu direnean ere, berriro «pentsamendu global zientifiko»aren ahala eta beharra aipatzen ari da. Modu zehatzago eta ordenamendu historiko baten barne, ondoko lerroetan hori guztia aztertzen saiatuko gara. Has gaitezen, bada, ulermen-eskema bat zirriborratzen.

I. PENSAMENDU GLOBAL ABSOLUTUAK

1. Pentsamendu global mitologikoa

Ez gara mitoa definitzen jarriko, baina, bidenabar, esango dugu, kondaira sinbolikoaz ari delarik, munduaren hasieraz edo denbora historikotik kanpoko gertakari harrigarrien berri ematea duela helburu. Gainera, aipatzen dituenak errealitatean inongo oinarririk ez duten usteak edo ideiak izan litezke. Pertsonaia, pertsona, gertaera, ekologia, teknika baten eta abarren inguruan sorturiko uste idealizatua osagai izan litzake. Bizia, bestalde, pertsona, pertsona talde, herri bakoitzean dago. Ahozkotasunetik bizi ziren kulturetan pentsamendu globalaren adierazpen tinkoena bera genuen. Horregatik edo, modernitateko zientzia diziplinarioak ideki izan direnean, antropologiak historiaren iturri nagusitzat emanaz bereziki jorratzen du ahozkotasuna. Joxemartin Apalategik, bere tesia, *Antropologia berria ahozko herri produkzioa. Ataungo Herria, auzoak, pertsonataldeak eta pertsonak* idatzi zuenean hara zer zioen: «Ataungo mitoak, klasifikatutakoak, mende honetan antropologoak bertako berriemaileengandik jasotakoak dira. Mito horien antzinatasunak oraingoz ez nau kezkatzen. Kezkatzen nauena zera da: mende honetan mitoak badirela

Ataunen, eta mitoak dituztenak nortzu diren eta nola harremantzen diren mitoak ez dituzten beste ataundar eta beste ezataundarrekin ezagutzea». Baina, mitoak aipatzean, ez da egin daitekeen gogoeta eta ikerketa soila bezain itxia. Kontzeptu abstraktuak azaltzeko erabilia izan den alegoria edo irudikapen sinbolikoa ere baita. Adibidez, Platonen haitzuloaren mitoa dugu horren lekuko.

Fenomeno humanoen ikasketatik gizaki kondizioaren **zentzu**-emaile bezala ere aztertua izan da mitoa. Baina, Claude Lévi-Straussek *La Pensée sauvage* obra argitaratu zuenean, honako hau idatzi zuen: «Giza eta Gizarte Zientzien azken helburua ez da gizaki zentzuduna eraikitzea, birrintzea baizik», eta, ondorioz, inkontziente egiturala hizkuntzazko jokotzat eman zuen Roland Barthes-ek, berriz, Saussuren ikerketa semiotikoa agertzen duelarik gure garaietako «mitologia» (*Le Tour de France, la mode vestimentaire...*) aztertuz arbitrarioan fundatutako ikurren sistematzat ematen du. Beste esaldi hau ere harena da: «Zientzia hain doa laster eta artez bere bidean, non errepresentazio kolektiboek ez dioten jarraitzen, mendeetan atzeraturik dabiltzalarik, errorean estankatuta gordeak baitaude botereagatik, prentsa agintzaileengatik eta ordenaren aldeko balioengatik».

C. Levi-Straussen jarrera estrukturalista laster kritikatu izan zen bi fronte desberdinetatik. Horrela, Paul Ricoeur-ek dio tradizio biblikotik sortutako «hermeneutika»tik gizakia zentzudunaren eta akzioaren iturri bezala ematea zilegizko dela. Bestetik, Jacques Derridak, estrukturalismoa, idatzizkoaren balorizazio mendebaldarrari loturik bizi dela estimatuz, dekonstruzioaren mugimenduaren bidez sistemen azterketa erradikalizatzen duela dio. Horiei ihardetsiz, C.Lévi-Straussek dio antropologia egituratutako gizarte guztiak barne dituen humanismo orokortzailea dela. Mitologiaren eta musikaren arteko homologiaren hipotesia ere formulatzen du: nola bata hala bestea kultur forma puruak direnez (pintura ez bezala, zeinak bere elementuak naturari lapurtzen dizkion), norbanakoaren edo gizartearen bizitza afektiboan errotuz zentzua produkzitzen dutela, alegia.

2. Pentsamendu global erlijiosoa

Erlijiozkoa, erlijioari dagokiona, alegia. Hau esanik, erlijioek, Jainkotasuna eta gizakien arteko harremana definitzen dituzte sineste eta dogmen multzoa eraikiz. Gainera, sineste horietako bakoitzak berezkoa duen praktika eta errito multzoa eratzen du. Eta horri guztiari batera, erlijio esaten zaio. Erlijioarekin mitoaren barrutia arras eraldatzen da. Bereziki erlijio hori Jainko bakar pertsonalizatura lotzen denean, hots, monoteismora bideratzen denean. Irudimenak agintzen zuen garaia baztertuz, arrazoiak sentimendu unibertsala gradualki bultzatzen du. Horrela, ordu arte garrantzi txikikoak ziren lege aldaezinetara lotu beharko dira natur feneomeno guztiak. Gizakiak bere izateak munduan duenari esplikazioa eta zentzua eman nahairik, Izate Gorenari eta haren indar gailurrenei dependentzia aitortzen die.

Hala ere, Giza eta Gizarte Zientzien aroa nagusitu zenez gero, erlijioari buruzko diziplina-azterketek bereizketa harrigarriak eskaini dizkigute. E. Durkheimen pentsamendua dugu, hasteko, horren lekuko. Erlijioaz ari delarik dibinitateari buruzko erreferentzia oro kanporatzen baitu. «Erljioa sinesmenen eta gauza sakratuen, hots,

bereizien eta debekatuen inguruko praktiken sistema solidarioa da. Zeinak Eliza deitu komunitate moral berean sinesmen eta praktika horiek onartzen dituztenak batzen baititu» (*Formes élémentaires de la vie religieuse*). Aurrekoa baino gutxiago ezagutua eta aipatua den P. Pinard de la Boullaye autoreak, aldiz, erlijioan ematen den jainkozko errealitatea azpimarratzen du: «Sinesmen eta praktiken (edo jarrera praktikoen) multzoak errealitate objektibo bati, edo gutxinetik horrelakotzat onartzen denari erantzuten dio, bakarra edo kolektiboa izan liteke, baina neurri batean bederen gailurrenekoa eta aldi berean pertsonala denak gizakia modu batera edo bestera dependente aitortuz berarekin harremanean atxikitzen du» (*Etude comparée des religions*).

Garbi dago humanitateak jainkozkoaren kezka unibertsalki erakutsi izan duela historian zehar. Hala ere, adierazpen modu arras bariatuak eta desberdinak jaso izan ditu. Eta Giza eta Gizarte Zientzien aroan ere diziplina desberdinetatik aboratu izaten jarraitzen du. Nagusiak bakarrik aipatzekotan, honako hauek lirateke: 1) *Erljioen Historia*: zeinak erlijio desberdinak bereizten dituen, primitiboak eta gaurkoak, politeistak eta monoteistak, gizaki talde bakar batena eta unibertsala, gizaki nahikunde naturaletatik eta errebelazioetatik sortuak direnak. 2) *Erljioaren Filosofia*: erlijioaren esentzia eta egiari buruzko gogoeta. 3) *Erljioaren Psikologia*: norbanakoaren nahiz kolektiboaren zentzu erlijiosoaren ikasketa. 4) *Erljioaren Soziologia*: honela erlijioaren izaera soziala, kolektiboki bizi denez, sinesmenen adierazpen denez, erritu jakinez osatua dagoenez, kanpotik erreparatzeko moduan ageri daitekeenez, soziologoak kontuan hartua eta neurtua gertatzen da.

3. Pentsamendu global metafisikoa edo abstraktua

Aurreko arloan naturaz gaineko agenteak kezka nagusi zirenean, orain abstrakzio pertsonifikatua kultibatzen da. Izatearen beraren funtsaz, errealitatearen eta ezagutzaren lehen oinarrirez dihardu. Ezagutza absolutuen ohiko joeran ageri den egikera esentzial berbera gordetzen du, baina, diferentzia nabarmen batekin hala ere: orain proposatzen den irtenbideak eraldaketa ohargarria dakarkio, geroagoko Giza eta Gizarte Zientzietara helduko den ikuspegiari leihoa idekitzen baitio. Errealitatean, metafisikak, teologiak zuen bezala, izakien ezkutuko natura, gauza guztien sorrera eta amaiera, fenomeno guztien produkzioko modu funtsezkoa endelgatzea du helburu. Baina, naturaz gaindiko agenteekin tratatu ordez, entitate edo abstrakzio pertsonifikatuekin ordezkatzen ditu, horrelako erabilerak, bereizgarri bilakatuz, anizteta, ontologian eratu arte.

Egiteko moduei dagokienez ere, badago berezitasunik: metafisika, baita bere goreneko organoetan darabilenean ere, gehiegikeriazko moduan argudiatzeak karakterizatzen baitu. Bazirudien egiteko modu horrek rol bat bete zezakeela «politeismotik monoteismoara» urratsa ematea helburu zen garaietan. Baina, lorpen horretara ailegatu zenean, ez zuen jakin bultzakada teologikotik ateratzen, eta filosofia egiteko modu guztietan present egoten jarraitu zuen. Gisa horretan, izpiritu metafisikoak gure filosofian modernoaren funtsezko bilakaera ezkerri eragin izan du zazpi mendez. Eta maleruski, finean, ikuspuntu ontologikoekin larregi jarraitutako akzio horrek sistema espekulatiboaren beste organizazio erreal bat eraikitzea tratatu

zuen. Gaur egun filosofiaren etsairik handiena erabilera kutsatu hori mantentzetik dator. Gaur da eguna, hemen, Euskal Herrian, hezkuntza alorrean, krisi serio bat agertuz filosofia formaziozko aroan zalantzan jartzeraino heldu dena.

II. PENTSAMENDU GLOBAL ABSOLUTUETATIK GIZA ETA GIZARTE ALORREKO DIZIPLINA ZIENTIFIKO ERLATIBOETARA

Hemezortzigarren mendeaz gero, nabarmen, pentsamendu zientifikoa giza eta gizarte-alorreko ikerketara hedatuz diziplinakoak deituko ditugun jakintzetara bideratuko zen. Objektibo absolutuetatik urrunduz erlatiboetara apailatuko baitzen. Bestela izan ezin zitekeenez, filosofia Giza eta Gizarte Zientziak ordezkatzeko zituen aroan bezala, Giza eta Gizarte Zientziak diziplinetara eramateko jokabide berria ere, filosofo batzuen eskutik abiatu zen. Eginkizun horretan Hume, Leibniz eta Rousseauen eraginak azpimarratu behar dira, baina E. Kant eta Augusto Comte izango dira jarduteko modu berriaren finkatzaileak.

1. E. Kanten arrazoimenaren eginkizunen kategorizazioa

Kantentzat mundu-gunea arrazoiarena da. Ezagutza unibertsala eta beharrezkoa lortzeko, ezagutzaren objektuak subjektu pentsatzailearen naturaren arabera arautu behar dira eta ez esperientziaren arabera. Sentsibilitate eta arrazoimenaren mugak errespetatzen badira, fisikan eta naturan agintzen den apriorizko lege-sistema lortzeko aukera ematen du adimenak. Gizakiak, ekintza moralez kanpoko objektuen bidezko ezagutzan baino mugatuago ez egoteko, borondate autonomoak animatutako arima aske baten hipotesia sortzen du. Halaber esaten digu ere, ekintza-printzipio guztiak maxima unibertsal bilaka daitezkeela. Horretarako gizakiaren aurrerapenak bertute indibidualetik eta konstituzio politiko batek bermatzen duen askatasun sozialetik igaro behar du.

Are, Makiavelok, Hobbese, Montesquieuk, Adam Smithen egin zutenek, Kantek ere, fisika mekanikoaren eginkizuna eredutzat hartuz, unibertsoa errealki esplikatzen duten legeak bizitza sozialari aplikatuz, botere politikoaren, bizitza ekonomikoaren, historiaren lege gordeak ikusmiratu nahi izan zituen, horien baliabideak kontrolatzeko asmoz. Hortik jauzitako emaitzak haren begiradaren arabera zientifikoak ziren, eta gisa horretan, ordu arteko filosofoek ez bezala, aholku moralak eman ordez ondorio zientifikoak proposatu zituen.

Geroago, edo ondotik, Herbert Spencer-ekin «organizismo sozial»aren eskola sortuko da. Eskola horretakoek gizartea deskribatzean, gorputz gizatiarraren arauekin parekatu zuten. Horrek dauzkan gehiegizko eratorpenekin. Hala ere, Giza eta Gizarte Zientziak eredu materialak baztertzuz eredu formalak hartzen aspalditik saiatu ziren. Eredu materialak ez bezala, orain eredu formalak, analogia egin beharrean, errealtatearen berreraiketa mentala egiten du sinbolo desberdinez baliatuz. Eredu formal puruena, edo bikainena, inongo ezberrik gabe eredu matematikoa dugularik.

2. Augusto Comteren ikerketa-eredu diziplinario eta erlatiboa

Comte izan zen Giza eta Gizarte Zientziak diziplinarioak egiteko bideaz, hemerezigarren mendean, argien eta sakonen gogoetatuz argudiotu zuena. *Discours sur l'esprit positif* izeneko bere liburuan benetako izpiritu filosofikoaren tasunak aipatzean honako hauek azpimarratu zituen: 1) «Baikor hitzak erreala adierazten du, kimerikoari oposatuz»; 2) «Baliagarria, alferrikakoarekin kontrastatuz»; 3) «Benetakoa, zalantziari oposatuz»; 4) «Zihurra, lanbrotsuari kontrajarriaz»; 5) «Baikorra, ezkorren aurkari bezala»; 6) «Erlatiboa, absolutuaren ordezkapen bezala».

Hasieran «fisika soziala» eta berehala soziologia deitu zuen giza-gizarte zientziaren oinarrian, hiru printzipio enuntziatu zituen. Lehenengoa, osotasunak zatikien gain duen lehentasunaren printzipioa. Fenomeno sozial berezi bat ulertzeko eta azaltzeko garaian testuinguru sozialak daukan garrantzia azpimarratzen da. Bigarren printzipioak baieztatzen du giza historiaren lerro gidatzailea batik bat ezagutzen aurrerapenak emana datorrela. Ezagutzak eta, zehazkiago, ezagutzamoduak dira historiaren elementu nagusia osatzen dutenak. Hirugarren printzipioa, bere konstituzio biologikoaren eta, batez ere, bere burmuineko sistemaren arabera, gizakia leku orotan eta sasoi guztietan berdina dela esatera datorrigu.

Hiru printzipio horiek finkatuz gero, Comtek gizartearen sailkapena eskaintzen digu. XVIII. mendetik aurrera Giza eta Gizarte Zientzien hainbat ikertzaileentzat zeregin bihurtzen da. Giza eta Gizarte Zientzia berriak, bere esentziaz, ohartun azkenean, iraultza galileo-kartesiarrak gain, beregan losa izaten jarraitzen zuen bahikuntza metafisikoa behin betiko suntsitzen du, esentziei buruzko jardunaldiak baztertuz eta naturarazko menerapenaren ekintza gizatiarra segurtasun osoz aurrikusiz eta burutuz, eta posible den neurrian matematikoki adieraziak dauden lege simple batzuen bidez fenomenoak elkarren artean lotzearekin askietsiz, aro berri bat hasten dela ondorioztatzea iristen da. Giza eta Gizarte Zientzia guztiak, haatik, ez dute aurrerapen hori erritmo berean eta aldi berean ezagutuko. Comteren arabera, ezagutza positiboa gizakitik kanpo zeuden edo harekin zerikusirik ez zuten objektuetan (zenbakiak eta astroak, adibidez) aplikatu zen lehenik, kimikatik hasi eta, batik bat, biologiaren bitartez gizakiarengana gero eta gehiago hurbiltzeraino. Une horretatik aurrera, soziologia ekintza sozialaren ikasketarako objektua, metodoa eta lege orokorrak zehaztera bideratuko da, zeinak Giza eta Gizarte Zientzia moderno oro eratzerakoan nahi eta nahiez eskatutako baldintza bihurtuko baitira.

Argi eta garbi aurreikusi zuen mentalitate tekno-zientifikoak naturaren zientzien mugak gaindituko zituela eta Giza eta Gizarte Zientzien barrutia inbadituz gero, gizarte industrialaren zientzia horietara laguntza eske hurbilduko zela. Gizarte industrialaren bere mekanismoetan ulertu nahi izan zuen, izera burges edo kapitalistari areagoko garrantzirik eman gabe. Eta gizarte industrialaren bilakaerari buruzko aurreikuspegiak egin zituen. Erratu zen ideologia nazionalaren iraupenari buruzko aurreikuspenetan. Ez zuen asmatu Estatuaren rola baloratzeko orduan. Instrukzioaren eskumen historiko-morala gehiegi baloratu zuen. Funtsean, gizarte industrialari iragartzen zion bake-aroaren ekarpena ez da halakoa izan. Aldiz, gizarte

industrialaren sekularizazioa aurreikusi zuen. Tailukera honetako gizarteak berezkoak dituen jarrera organizatiboak aurreikusiz teknokraten rola ongi baloratu zuen.

3. Teoria globalen presentzia giza eta gizarte-alarreko diziplina zientifikoaren aroan

Hemeretzi eta hogeigarren mendeetan Giza eta Gizarte Zientzia diziplinarioen emaitzak ugaritzen eta sendotzen joan ahala, gai zehatzen gainean altxatutako ikuspegi sistematiko organizatuak bideratzen joan ziren. Aldi hartan, hala ere, pentsamendu global primitiboaren garaian ez bezala, teoria global horiek fenomeno materialen ingurumena errespetatuz emaitza zehatzekin erkatzen ziren. Hori dela-eta, giza eta gizarte-alarreko diziplina zientifikoein lehia sartzen dira. Izan ere, ibilbide zientifikoaren aroan, teoria, faktore anitzen sintesi izateko ahaleginean izpirituzko eraikuntza izanik, ikerketan lortutako hainbat lorpen eta oharren ordenaketa eta laburbiltze bihurtuko baita. Teoriaren egitekoa izan ohi da ere fenomeno eta jakitate desberdinak printzipio simple batzuetara edo printzipio bakar batera eramaten saiatzea. Eta finean, teoriak, aurretik normatibizaturik dagoena baino areagora iristeko erronkan, globalizatzaileagoa den hipotesi batetik partituz gertakizunen, portaeren edo fenomenoaren artean aurki daitekeen lege multzo txiki bat edo lege bakar bat lantzea izan ohi du helburu.

Hori ilustratzeko, eredu honetako bi teoria gobar eraginkorrenak aipatuko ditugu: marxismoa eta estrukturalismoa, hain zuzen.

3.1. Marxismoa

Karl Marxek berak materialismo dialektiko edo historiko deitu zuen bere pentsamendua. Aldi berean pentsamendu eta akzio izan nahi zuen sintesi zabal hau biziki zaila da laburbiltzeko ere. Hasteko, hizkuntza propio aberatsa eraiki baitzuen: dialektika, materialismoa, besterentzea, klase-borroka, praxia, proletariotzaren diktadura, plusbalia, fetitxea, azpiegitura, gainegitura eta abar.

Marxismoak akzio sozialaren interpretazio berri bat dakar. Aldi berean, modu global, historiko, ekonomiko, politiko eta soziologiko izanez aztertzen duelarik errealitate soziala. Horren lekuko gogora dezagun Marxen honako printzipio hau: «Oro soziala bere zatikien batuketatik ezberdintzen den gauza dela». Marxek, *Kapitala* bere obran, metodo historiko-konparatiboa eta metodo estadistikoa lantzen ditu.

Hala ere, Henri Lefébvrek (*Sociologie de Marx* obran) argi eta garbi dio Marxen ikerketa egiteko moldeak Giza eta Gizarte Zientzien marko espezializatuak gaintitu egiten dituela, hots, Zientzia Politikoa, Ekonomia Politikoa, Soziologia, Psikologia Soziala, Antropologia eta abar gurutzatzen dituela. Marxek errealitate soziala modu globalean, historikoan, ekonomikoan, politikoan, soziologikoan eta psikologikoan bordatzen baititu.

Gaur egun zer? Marxismoa bere kategoria propioen gainean zutitu zen. Eta ondotik baldintza historiko eta sozialen funtzioan eraldatzen joan zen. Bilakaera horri

erreparatzen badiogu, zera ageri zaigu: kontradikzio objektiboetan zeharbidea egin zuela. Giza eta Gizarte Zientzien alorretik garbi dago materialismo arrunta baztertu behar dela, hasteko. Ezagutzaren, materiaren, dialektikako lege bereizien teorietan emandako agerpen dogmatikoen hipertrofiak inolaz ere onik ez diote egin, alderantziz baizik. Horrela, bada, ezagutzaren historia birformulatzeokotan egindako erroreak eta bakoitza bere aldetik ibiltzeko ohiturak ekidin behar dia. Kontzeptu unibertsalen eta kontzeptu espezifikoaren formazioan ez da barne-mugimendu jarraiturik egon, G.Hegelek gomendatzen zuena errespetatuz. Pentsamendu marxista plano batetik bestera irristaka ibiliz ezin da eraiki: plano filosofikotik politikora eta alderantziz mugituz, adibidez. Ezta filosofikotik Giza eta Gizarte Zientzia diziplinarioetara ere. Sistema berean emango liratekeen bateraketa eta konfusioa ekidin behar dira. Materiari, metodoari edo lege dialektikoei buruzko baieztapen partikularrak ezin dira absolutizatu. Jakintza bakoitzak bere analisi dibersifikatua eskatzen baitu eta lotura bakoitzak bere karaktere zehatza darama. Ez dago ezbairik Giza eta Gizarte Zientziek jarrera filosofikoekin eta klase-praktika eta -borrokarekin daukaten lotura ez dela batere Natura Zientzien alorrekoa.

3.2. Estrukturalismoa

Estrukturalismo kontzeptuak pentsamenduko korronteen multzo heterogeneo bat adierazten du. Eta bereziki psikoanalisitik gizarte globaletarainoko Giza eta Gizarte Zientzietan aplikatzen zaie. Horiei guztiei berdina zaiena, hain zuzen, estruktura nozioa erabiliz maila bakoitza esplikatzean datza. Multzo kontsideratuari orokortasun estrukturatu bat bezala erreparatzen zaio, hots, elementu interdependentez konposatutakoa eta auto-eraldatze erreglatzeari sentibera izanaz formazio sozialera igaro daitekeena. Estrukturalismoa, bada, harremanak euren baitan kontsideratuz gero zentzuzko sistema batean antolatzean datza. Baina, zientzia eta autoreen arabera, kontsideratutako objektu beraren izaera sistematikoa nabarmentzeko edo objektu berari axiomatiko bat aplikatzeko joerak nagusitu daitezke, zeinetarik teorema jalkitzen batira eta objektua sistema bezala kontsideratzen duen teoria eraikitzen baita. Horrela, batzuen ustez, orokortasun bateko zatikien artean dauden harremanak ikertzeraz mugatzen den bitartean ez legeko estrukturalismorik; areago joan behar da, beste orokortasun estrukturatu batzuekin egon litezkeen hurbilketak eta erkaketak egiteraino, alegia.

Bestalde, ez dago estrukturalismo bakar bat. A. R. Radcliffe-Brownentzat estruktura sozialaren funtzioa deskribatzaile izatean datza, hots, eredu kontzeptuala izan daiteke. Aldiz, C. Lévi-Straussen estrukturalismoaren funtzioak interpretazioa eta azalpena atzematen ditu, hots, eredu teoriko bat da. Beste hitz batzuekin esanda, eredu kontzeptualak errealitatearen oharrena helburu duenean, eredu teorikoak errealitatearen ulermena xerkatzen du. Ageri zaigunez, korronte estrukturalista desberdinen arteko diferentziek arazo ugariak eta konplexuak sortzen dituzte. Horrek operatibitatea kamusten dio estrukturalismoari, eta Giza eta Gizarte Zientzia diziplinarioentzat ez da beti ekarpen argi bat. Metodo estrukturalista orokor eta bakar bat ez dagoenez, Giza eta Gizarte Zientzia diziplinarioetan dabilzanen metodoak ordezkatzeko balio orokorrik ez du, eta, ondorioz, teoria globalaren azken adierazpenik ez du lotzen.

III. PENTSAMENDU GLOBAL METODOLOGIKOAREN AMETSA BERRIRO LANTZEN

Gaur egun, Giza eta Gizarte Zientza diziplinaroen emaitzak lorpen nabariak direnean ere, badira, zorionez, oraino hobeak izan ahal direlako ustearekin, horretarako pentsamendu globalaren baldintzak aztertzen dabiltzanak. Eta beste behin ere, pentsamendu globalaren ametsa ageri da horren guztiaren enborrean. Bistan da aurrez aipaturiko pentsamendu globalaren saioetatik at dabiltzala lorpen berri horren xerka. Ezin zitekeen bestela izan, noski.

Lehenik eta behin Edgar Morin-en obra anbiziotsua gogora ekarri behar dugu. Orain eta hemen, Giza eta Gizarte Zientzientzat «metodo» orokor bat forjatu nahi da. Antzinako pentsamendu globala, bereziki aro primitibokoa, kontsiderazio absolutuetan kokatzen zenean, eta berriagoek (marxismoa edo estrukturalismoa), printzipio edo jomuga esperimentaletik partituz bazen ere, behin eta berriz traba metodologikoekin aurkituz porrot egina dutenean, orain, zuzenean, ezagutza gizatiarraren mugak eta ahalak atzematea da helburua, ondoren konplexutasun gizatiarra ulertzea bideratutako pentsamenduaren kokaleku berriaren inguruneak marrazteko. 1990az geroztik, *La méthode* izendatu duen sei tomoko obra argitaratu du jadanik aipatu autoreak. Horietarik azkena, 2015ean, «Penser global. L'humain et son univers» deitu duena daukagu. Zer-nolako planteamendua da berea? Gizakiaren definizioa hirukoitza dela adieraziz abiatzen da: gizakia, aldi berean norbanakoa, gizartea eta espezie biologikoa baita. Horietariko bakoitza ehunetik ehun betetzen da bere baitan. Aldiz, irakaskuntzan bezala ikerketan hiru nozio funtsezko horiek dramatikoki moztuak eta kontrajarriak erabiltzen direla azpimarratzen du. Ez dago giza eta gizarte-diziplina bakar bat hirukak batera erabiltzen dituenik. Premiazkoa gertatzen ari da gizakia bere globalitatean pentsatzea. Humanitatea, aipatu hiru angelu horietatik ikusiz, historian zehar, mundializazio-aroran eta etorkizunean izan daitekeenaz kontsideratu behar dela diosku autoreak. Planteamentu bitarrak baztertzeko ordua ere badela baieztatu du. Adibidez, eredu ekonomiko mundializatuak planetako baliabideak agortzera garamatzala. Galdera ez da hazkundera ala tipitzea, aitzitik hazkundera eta tipitzea kontuan hartuz sintesi baterako globalean bete beharrezko praktika egokiak zeintzuk diren izendatzea litzateke ihardespenez egokia. Globalki pentsatzea, konplexuki pentsatzea da, hots, pentsatzeko orduan beti osoa eta zatikiak kontuan hartzea, arrazionalitate itxia, dogmatizazioa eta egia osoa baztertuz, duda-muda den oro pentsatzea. Pentsamendu konplexu honetatik humanitatea fokatzeko, burdin aro planetarioan gaudela ulertzea, hots, gizaki-izpirituaren aurrehistorian kokatzea.

Gaukoz, finean, badira Giza eta Gizarte Zientzien kontsiderazio globala bideratu nahirik hainbat alorretako arazoez gogoetak egiten ari diren beste hainbat autore. Hasteko, esan dezagun, ikertzailearen jarreraz eta horren ondorioez lortutako emaitzetan, beti airean egon dela eztabaida, eta jarraitzen duela egoten. Giza eta Gizarte Zientzia diziplinaroen munduan, argi eta garbi nagusi den jarrera da, ikertzailearen subjektibitatea desagerraraziz objektibitatearentzat oro zientifikoa errebindikatzea. Hori kontuan izanik, bada bestelako gogoeta proposatzen duenik: «nia» sakrifikatzea dela eta hori ekidin behar dela, alegia. Horretarako, «niak» ez

al dauka objektibitate-punturik? galdera formulatzen da. Horren alde, hainbat eta hainbat ikertzailek adierazten digutena daukagu, euren «nia» partaide garrantzizkoa izan dela egindako ikerketa-lanetan, alegia. Horrela, adibidez, Jules Michelet-ek 1869an *Histoire de France* obrarentzat aitzinsolasa idazten duenean, historia eta historialaria inplikaturik daudela errebendikatzen duenean. Orduan, «nia» absolutuki bermatu beharra dago. Ildo horri jarraikiz, Ivan Jablonkak, *L'histoire est une littérature contemporaine. Manifeste pour les sciences sociales* (2014) obran «nia»-ren hiru dimentsio aipatzen ditu: «ni» lekukoa; ikerketako «nia»; eta kontra«nia». Ondorioz, ikertzaile baten baitan «nortasuna» eta «subjektibitatea» bereiztea funtsezkotzat ematen du.

Ondorioetako bat da, orobat, aditz singularraren lehen pertsona arrazoibidearen orduan funtsezko gerta daitekeela. Hainbat funtzio betetzen ditu: bat, lekukoaren presentzia fisikoa izatea; bi, arrazoibidearen saremaile-funtzioa; hiru, autoreak epaia egitea. Horrela, aditzaren lehen pertsona hori Giza eta Gizarte Zientzien barnean, **muga** baten adierazle bilakatzen ahal da, hots, handizki idekia den ikuspegi bat seinatzera etor daiteke. Aditz singularraren lehen pertsona idazkera-aukera bat izan aitzin, askatasun epistemologikoaren adierazle baita.

Modu gogoetatsuak bertute bezala bere baitan darama ahalegin metodologikoaren narrazioan barneratzea. Horrela modu gogoetatsuen lau printzipio aipatzen dizkigu: 1) Ikertzailearen inplikazioa: nahiz eta obra bat mendeetako ikertzaile anitzen lanari zordun izan, azken uneko ikerlitzzaileari mila hari ezkutuz loturik egon ohi zaio. Haren epistemologia Pascalen eskariari leial jarraikiz «niaz» onuradun gertatzen baita, hots, «ni» lekuko batez konposaturik anti-Narziso, ikerketako «nia» eta kontra«nia»-ren eragina baitu aldi berean. 2) Aditz singularraren lehen pertsona metodotzat: ikertzailearen nortasuna narrazioan integratuz, aditz singularraren lehen pertsona erabiltzeak objektiboago egiten baitu. 3) Ikuspuntu bat ikuspuntuaz: leku onean egotean, ikertzailea errearekin borrokan sartzen denez, baztertuak izan daitezkeen egiaeren formulazioak ematen saiatzen baita. 4) Gardentasun demokratikoa: zintzotasun handienez egindako arrazoibidea praktikatzen baitu.

Honekin, gaurkoz, gogoeta hau eten egingo dugu. Irakurleatariko bat gai honekin interesaturik balego, aipatu berri ditudan bi autoreen lanetan murgiltzeko aholkua emango nioke.

Bibliografia

- Apalategi, Joxemartin (1988): *Antropologia berria ahozko herri produkzioa. Ataungo Herria, auzoak, personataldeak eta pertsonak*, Aurrezki Kutxa Munizipala, Donostia.
- Barthes, Roland (1957): *Mythologies*, Seuil, Paris.
- Comte, Auguste (1830-1842/1968): *Cours de philosophie positive*, Anthropolos, Paris.
- , (1844/1963): *Discours sur l'esprit positif*, Aubier, Paris.
- , (1851-1854/1929): *Système de politique positive*, Société positiviste, Paris.
- Derrida, Jacques (1967): *De la Grammatologie*, Minuit, Paris.
- , (1967): *L'Écriture et la différence*, Seuil, Paris.
- , (1967): *La Voix et le phénomène*, PUF, Paris.
- , (1972): *Marges de la philosophie*, Minuit, Paris.

- Durkheim, E. (1912): *Formes élémentaires de la vie religieuse*, PUF, Paris.
- Hegel, G. (1807/2012): *La Phénoménologie de l'Esprit*, GF Flammarion, Paris.
- , (2015): *La Science de la logique*, Vrin, Paris.
- , (2000): *Encyclopédie des sciences philosophiques*, Vrin, Paris.
- , (1989): *Principes de la philosophie du droit*, Gallimard, Paris.
- , (2007): *Leçons sur l'histoire de la philosophie*, Folio, Paris.
- , (2012): *La Raison dans l'histoire*, Hatier, Paris.
- Jablonka, Ivan (2014): *L'histoire est une littérature contemporaine. Manifeste pour les Sciences Sociales*, Seuil-La librairie du XXI^e siècle, Paris
- Kant, Immanuel (1781): *Kritik der reinen Vernunft*, 2. ed., 1787 (*Critique de la raison pure*, 1950).
- , (1786): *Metaphysische Anfangsgründe der Naturwissenschaft (Premiers principes métaphisiques de la science naturelle)*.
- , (1788): *Kritik der praktischen Vernunft (Critique de la raison pratique*, 1949).
- , (1797): *Die Metaphysik der Sitten*, 2. ed., 1798-1803 (*La Métaphysique des mœurs*, 2 vol., 1799, berrinprimaketa 1965).
- Lefebvre, Henri (1966): *Sociologie de Marx*, PUF, Paris.
- Claude Lévi-Strauss, (1962): *La pensée sauvage*, Paris, Plon.
- , (1964): *Mythologiques I. Le Cru et le cuit*, Plon, Paris.
- , (1967): *Mythologiques II. Du miel aux cendres*, Plon, Paris.
- , (1968): *Mythologiques III. L'Origine des manières de table*, Plon, Paris.
- , (1971): *Mythologiques IV. L'Homme nu*, Plon, Paris.
- Marx, Karl (1993): *Le Capital*, PUF, Paris.
- Marx eta Engels, (1848/1973): *Le manifeste communiste*, Le Livre de Poche, Paris.
- Michelet, Jules (1869/ 2008): *Histoire de France, Tome 1, La Gaule, les invasions, Charlemagne*, Editions des Equateurs, Paris.
- Morin, Edgar La Méthode (1989): *Vidal et les siens*, Seuil, Paris.
- , (1993): *Terre-Patrie*, Seuil, Paris.
- , (2009): *Edwige l'inséparable*, Seuil, Paris.
- , (2011): *La Voie*, Seuil, Paris.
- , (2013): *Mon Paris, ma mémoire*, Seuil, Paris.
- , (2015): *Penser global. L'humain et son univers*, Robert Laffont, Paris.
- Pinard de Boullage, P. (1874): *Etude comparée des religions*, Beauchesne, Paris.
- Radcliffe-Brown, A.R. (1952): *Structure and Fonction in Primitive Society*, Cohen and West Ltd, Londres.
- Ricoeur, Paul (1990): *Soi-même comme un autre*, Seuil, Paris.
- Spencer, Herbert (1876-1885): *Principles of Sociology*, [3.t. frantsesez, (1878-1896), *Principes de sociologie*], Librairie Germer, Ballière et Cie, Paris.